

GURE LANSARIEN, PENTSIOEN ETA ZERBITZU PUBLIKOENTZAT HAUSTURA EXIJITZEN DUGU!

Erretretak, lansariak, zerbitzu publikoak, gai horiek funtsezkoak dira. Irabazi eta garaipenak atera ditzakegu, Macronek aldiz, borondate orokorraren aurka eskuin muturraren babesarekin bere norabide liberal eta autoritarioa mantentzea inposatzen saiatzen den bitartea.

Milioien truke 6 hilabete baino gehiagoz mobilizatu gara 64 urterekin erretreta hartzearen aurka. Macronek 49.3rekin indarrez pasaraztea erabaki zuen, baina zigortu egin genuen, Europako eta legislatibotuko hauteskundeetan porrot handiak jaso. Jada ez du zilegitasunik bere hautuak inposatzeko. Beraz, orain pentsioen erreformaren indargabetzea irabaz dezakegu eta irabazi behar dugu.

Gure hilabetesariak, pentsioek, bekek eta gutxieneko sozialek ezin dute atzera egin inflazioaren aurrean! Orduan bat egiten dugu urriaren 1ean erretretadunen elkarteek zabaltzen duten deiarekin, pentsioak emendatuak izateko eta inflazioari indexatuak izan daitezen baita emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari aldarrikatuz.

Gure zerbitzu publikoak ez dute gehiago horrela irauten ahal. Macronen gobernuak egin zutenhauen likidazioarengatik, eskuin muturraren igoeraren jokoan sartu zen. Osasun, hezkuntza, goi-mailako irakaskuntza, ikerketa, ingurumen eta abarrerako finantza eta giza baliabideak exijitzen ditugu.

Kanporaketak ugaritzen segitzen dute, enpresa handiek deslokalizatzen jarraitzen dutelako. Urtero, 170.000 milioi euroko laguntza publikoak kontrapartidarik gabe banatzen zaizkie enpresei, jakinez horien akziodunei ordaindutako dibidenduak ez direla sekulan haien handiak izan. Mobiliza gaitezen kanporatze guztien berehalako gelditzearentzat, birkokapena eta gure industriaren ingurumen-eraldaketa irabazteko!

Gazteak daude gizarte haustura politika horiek pairatzen lehenengoetarikoak. Premiazkoa da gazteak babes sozialean jartzea, beken sistema erreformatzea eta unibertsitatera sartzean selekzioa indargabetzea eta aldatzea.

Urriaren 1ean hasiko dira Estatuaren eta Gizarte Segurantzako aurrekontuei buruzko eztabaidak Asanblada Nazionalean. Irabazteko unea da, azkenean aberatsenak eta multinazionalak gure zerbitzu publikoak, justizia soziala eta ingurumenekoa finantzatzeko bortxatuak izan daitezen. Pentsioen erreformaren indargabetzea irabazteko momentua da!

Orain, gurekin kontatu behar da eta irabazi ! Hori indar-harreman argi eta masibo batekin baino ez da posible izango. Denok greban eta manifestazioan urriaren 1ean!



2024ko URRIAREN 1A ASTEARTEA – 10:30
PAUEN – VERDUN PLAZAN
BAIONAN – SANTA URSULA PLAZAN